

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

278/2016 Foru Agindua, irailaren 22koa, ebazten duena Ogasun Zuzendaritzako bi zerga ikuskatzaile lanpostu, 1131.011 eta 1131.012 kodedunak, berariazko lehiaketa bidez betetzeko martxoaren 14ko 110/2016 Foru Aginduaren bidez egindako deialdia

Martxoaren 14ko 110/2016 Foru Aginduaren bidez, Ogasun Zuzendaritzako zerga ikuskatzaile lanpostu bi, 1131.011 eta 1131.012 kodedunak, berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen.

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostua M^a José Perea Urteaga andreari esleitzea, eta 1131.012 kodea duena Agustín Vicente Vicente jaunari.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta, otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko atxikitzea M^a José Perea Urteaga andrea 1131.011 kodea duen Ogasun Zuzendaritzako zerga ikuskatzaile lanpostura, eta Agustín Vicente Vicente jauna 1131.012 kodea duen Ogasun Zuzendaritzako zerga ikuskatzaile lanpostura.

Bigarrena. Ezingo diete uko egin esleitutako destinoei eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango dute parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, nola eta funtzionario horiek ez duten galtzen eskuratutako lanpostuetarako atxikipena, 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 50. artikulua 3. idatz zatian eta 4. idatz zatiko a) letran xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena. 2016ko irailaren 30ean utziko dituzte jatorrizko lanpostuak.

Laugarrena. 2016ko urriaren 1ean jabetuko dira esleitutako lanpostuez.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan -azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin loturik- aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2016ko irailaren 22a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR